

SECCIÓN AMENA

SAGARDOTEGIYAN

Donosti inguruko
 baserri batian,
 sagardua zeukaten
 saltzen kupelian;
 aldendua zeukan ark
 zumo ta graziya,
 ain zan sagardo ori
 charra ta graziya.
 Arrantzale bat joan zan
 egarriyak ara,
 baso pare bat edo
 iru eratera;
 sartu ta diyo:—«Bete
 lendabizikua».
 Andreak eman ziyon
 eskatutakua.
 Eran ta gorputzari
 egiñ ziyon *dar dar*
 charra zala igarri
 zuben arrek azkar,

zerbait egon ta diyo:
 —«Bete bigarrena».
 Ikaraz justu justu
 zuben ustu dena,
 gaidetu ziyon:—¿Zenbat?
 —Au jakiña dago,
 chakurrian basua,
 bik, *amar sentimo*.—
 Chakur aundi paltso bat
 berekin zeukana
 eman ziyon esanaz:
 —Artu beza, ama.—
 Andre ark arturikan
 diyo:—Au charra da.
 —Saltzen dagon sagardo
 orire ala da;
 ¿zer uste zuben bada
 charra eratia
 eta gero dirua
 ona ematia?

JOSÉ ARTOLA.